

Lanbide Heziketako 30 ikaslek Agoitzeko *EcoIntegra* planta bisitatu zuten Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko Hezkuntzan Hezitzen Programaren barne



Bisitaren azalpenak entzuten

Altasuko Lanbide Heziketako Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak eta Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta ikasten ari diren 30 ikaslek Aspacek Agoitzen duen planta ezagutzeko parada izan dute.

Aspacek 2007 urtean EcoIntegra planta martxan jarri zuen. Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak tratatzen dituzte.

Gaur egun hiru lan-lerro daukate: hotz-aparatuak tratatzeko, gainerako etxetresna elektrikoak (garbigailuak, ordenagailuak, mikrouhinak...) tratatzeko eta TRC monitoreak eta pantaila lauak tratatzeko. Planta honen gauzarik bereizgarriena hotz-aparatuaren lerroa dadituzten osagai kutsatzaileak berreskuratzen baitituzte: konpresoreandagoen olioak eta gasa eta hotz aparatuaren egituraren barne dagoen gasa, hain zuzen ere.

Hondakinen kudeaketan eta gardentasunean eredu dira, gizarteak ingurumen eta gizarte arloetan burutzen duten lana ezagutu dezan: ECO eta INTEGRA.

8.000 tona inguru kudeatzen dituzte urtean, penintsularen iparraldetik eta Frantziatik garbiguneetan eta dendetan jasotzen diren hainbat tresna elektriko osatuta daudenak. Nafarroatik 200-500 tona inguru jasotzen dituzte, gehiengoak Emausko Trapuketarien bitartez. Sartzen diren tresna elektriko eta elektronikoaren % 93a berreskuratzea lortzen dute, soilik %7a deusestatuz. Lortzen dituzten gaiak birziklatze enpresa desberdinetara bideratzen dituzte hondakin zena lehengai bihurtuta, produktu berriak sortzeko.

Berreskuratutako materialak mota askotakoak dira: letoia, burnia, altzairua, kobrea, aluminioa, hainbat plastiko mota, kartoia, gomak, egurra, porexpana, telebisten beira..



Hotzgailu bat osagaietan birrinduta

Eta baita tresnen osagai diren honako materialak ere: motore elektrikoak, kableak, CPU zirkuituak, kondentsadoreak, entxufe eta klabijak, egokigailuak eta erreaktantziak, besteak beste.

Bertan 65 langilek lan egiten dute. Gehiengoa gaitasun desberdinak dituzten pertsonak dira. Aspacek argi dauka bere funtsa eta pertsona hauen gizarteratzearen erronkan pertsona bakoitzari egokitzen zaizkion lanak bilatzen dituzte. Izan ere, pertsona hauentzat oso garrantzitsua baita lana edukitzea, lankideekin sortzen dituzten harremanek eskaintzen dizkieten onurekin eta gainera, ingurugiroaren alde lan eginez.

Lanbide Heziketako ikasleek eta irakasleek oso positiboki baloratu zuten bisita. Eointegratik bisitak jasotzeko irrikitan daude egiten duten lanaren berri emateko. Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzutik ere oso aberasgarria iruditu zaigu esperientzia eta horregatik hurrengo ikasturtera begira Sakanako ikastetxeak horrelako irteerak egitera animatzen ditugu.